



BARREN

TOKIKOM

Argirik ez zahar etxeetako lan gatazkan



UE50NU7405U LED
SAMSUNG TELEBISTA



569 €

Smart TV / HDR 10+ (HLG)
3HDMI / 2 USB / 4K

WU12Q468ES
SIEMENS ARROPA GARBIGAILUA



449 €

iQdrive motora, 10 urteko bermearekin
A+++ / 8 KG Karga / 1200 r.p.m.
Waterperfect: Uraren kontsumoa
kargaren arabera kontrolatzen duen sistema
Variospeed: %65 ra arte murrizten du garbiketa zikloa

KG39NX14A COMBI
SIEMENS HOZKAILUA



899 €

A+++ / NO FROST /
Hatz marka kontrakoa
203 cm-ko altuera

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA EDUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Torbio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

FUB Fernando Urizar Barandiaran

R.P.S.: 52/17

Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Ego-Cain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
urizar1@yahoo.com
615 715 404

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 505 638
www.fisio-mas.com

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

leku edero
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Eizpuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Gremioen gida

GREMIOEN GIDA

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilean

21 Eren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.885
die astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Auzo-lotsa

liburuak bazter batean ahaztuta uzten ditugun moduan, lotsati izateari utzi zion, eta ez dakizue zenbat berba egiten zuen! Gure amaren ustez, oso ohikoa omen da haurra zarelarik lotsatia izatea.

Gero, bizitzaren eskarmentuak, eta adinak dena sendatzen du, antza. Hararik ere, ez dakit, bada, lotsati-etapa hura guztiz gainditu dudan. Izan ere, lehengoan, Borrellek, Espainiako Atzerri Gaietarako ministroak, Mexikoko presidenteari, Manuel Lopez Obradorri eta Alemaniako telebista kateko kaze-

tariari Kataluniaz elkarrizketa batean esandakoa entzutean, Espainiarekiko auzo-lotsa sentiitu nuen, eta zera pentsatu nuen, nahiz eta horrelakoek ezer gutxi merezi dutela jakin: Ezagutuko al du ez gorritzeko gure amaren teknika? Horrelakoetan, arnasari eusteko esaten zidan, eta batetik hamarrera kontatzeko: bat, bi... Oso metodo ona da ez gorritzeko, eta barregarri ez egiteko, baina ez dakit horrelako metodoak horrelako espainiarrekin funtzionatzen duen. Izan ere, Espainiak aspaldian lotsa galdu du, eta kutsatu nahi gaituzte.

Ni umetan oso lotsatia nintzen, eta oso gauza arraroak egiten nituen. Behin, arazoaren tamaina argitu aldera-edo, amari galdetu nion, ea osasunerako txarra zen horren gorri jartzea: Lasai! Hori berez sendatuko da.

Itxura denez, bera ere umetan lotsatia zen, baina gero eskola sasoiko

“Gure amarena oso metodo ona da ez gorritzeko eta barregarri ez egiteko, baina ez dakit horrelako espainiarrekin funtzionatzen duen. Espainiak lotsa galdu du”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Elizketa Lantzeren Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
KLUBTAMENTU

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZUZENKETA

Erroma Euskal Herrian hitzaldi zikloaren barnean joan den apirilaren 10ean burutu zen saioan Jokin Lanz historian lizentziatu gisa aurkeztu genuen. Okerrak zuzendu beharrez, Jokin Lanz lizentziatu ez ezik, historian doktore ere badela jakitera eman nahi dugu antolatzaileok. Urtearen bukaeran argitaratuko dute bere doktoretza tesia.

Baliagarri izan bitez lerro hauek hutsa zuzendu eta gure gonbidatua behar bezala aurkezteko hitzaldira agertu ziren adiskideei.

Azkenik, jakinarazten dizuegu hitzaldi zikloko hirugarren eta azken hitzaldia irailaren 18an izango dugula. Luis Mari Zaldua filologoak euskalduntze berantiarren teoria izango du hizpide *Euskalduntze berantiarren teoria: egia ala gezurra?* izenburupean.

Milesker denei.

Ilumbarri Achademia

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingariak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitzik argitaratuko.



Maiatzaren 26an Udal, Foru eta Europako hauteskundeak

Galdetu Elgoibarko eta Mendaroko alkategaiei

Bidali alkategaientzako galderak maiatzaren 15erako:
barren@elgoibarkoizarra.eus  688 634 044



Ane Beñia
(EAJ-PNV)



Jon Peli Urquien
(EHBildu)



Fernando Suarez
(PSE-EE)



Javier Otero
(PP)



Evaristo Rodriguez
(Elkarrekin-Podemoz)



Enetz Ezenarro (EHBildu)



Inaki Arregi (EAJ-PNV)



Mari Jose Telleria (PSE-EE)

Urazandi auzorako irisgarritasun plan proposamena aurkeztu du EHBilduk

Jon Peli Uriguen, Jose Javier Arregi eta Aitziber Aranberrik prentsaurrekoa eman zuten eguaztenean, Urazandi auzorako proposatu duten irisgarritasun plana aurkezteko. Uriguenek esan zuten pertsonak direla EHBildurentzat lehentasuna eta Elgoibar atseginagoa egin nahi dutela, pertsona horiek "gustura" bizitzeko. Urazandi auzoa "ahaztuta" egon dela gaineratu zuten, eta horregatik herrigunearekin lotzeko proposamena landu du EHBilduk. Proiektua bi fasetan gauzatuko lukete: lehenengo fasean Pilarreko lursailean dauden hondakinak kendu eta bi igogailu eraikiko lituzkete, ingurune hori Urazandirekin lotzeko. Bigarren fasean, merkatu plaza bota, eta ibaiaren zati bat estalita terraza moduko bat sortzea proposatzen dute, Urazandi Lekuderrekin lotzeko. Errepide azpian aparkalekuak egiteko aukera ikusten dute, herrian dagoen aparkatzeko arazoari irtenbidea emaneke, eta Pilarreko espa-



zioan denon artean eztabaidatuko lituzkete zer egin. Aukera desberdinak ikusten dituzte beraiek: aisialdi gunea, aparkalekuak, zahar etxea... Asmo handiko proiektua dela jakitun dira, baina EHBilduk uste du proiektu honekin herri guztiak irabaziko lukeela, izan ere, Urazandi auzoa herrigunera gerturatuta, hango auzotarrek gehiago kontsumituko lukete herrian, eta merkataritza txikiak ere

irabaziko luke. Herria "hiltzen" ari dela esan dute, enpresak herritik joaten direlako eta denda txikiak ixten ari direlako. Auzoak herrigunearekin lotzea ezinbestekotzat jotzen du EHBilduk, herria bizirik mantentzeko.

EHBilduk argi utzi nahi du hau hasierako proposamena besterik ez dela, eta ekarpenak eta hobekuntzak jasotzeko prest daudela.

Udalak ez du onartu IZA enpresaren alegazioa eta isuna jartzea erabaki du

IZA Obras y Promociones SA enpresari espedientea zabaltea erabaki zuten Elgoibarko Udalak otsailaren 28ko Osoko Bilkuran, Aita Agirre eraikineko lanetan atzeratu egin zelako. Atzerapen egun bakoitzeko 631,27 euroko isuna jartzea erabaki zuten. Udalaren esanetan, urtarrilaren 15erako bukatu behar zituzten lanak, hortaz, egun horretatik obren harrera egiteko akta sinatzen zen egunera arteko isuna jartzea erabaki zuten. Iza enpresak alegazioak aurkeztu ditu, esanez ez dagoela ados lanen amaiera data horrekin, eta bere ustez, maiatzaren 15a hartu behar dela amaiera data moduan. Enpresaren esanetan, Administrazio Baldintza Berezien pleguaren 2. baldintzak ezartzen du obrak gauzatzeko epea 18 hilabetekoa izango dela. Horrez gain, epea bi hilabetez luzatu zela diote, eta kontratuan bertan ezarrita zegoela hilabete ko etenaldia egingo zela. Hortaz, enpresak dio 22 hilabeteko epean bukatu behar zituztela lanak, hau da, maiatzaren 15erako, eta isuna egun horretatik aurrera aplikatu beharko litzazkeela.

Joan zen astean batu zen Udaltzatza, eta ez zuten onartu IZA Obras y Promociones SA enpresaren alegazioa. Beraz, isuna ja-



rriko diote. Udaleko arduradunek esan dute egia dela Baldintza Administrazio Berezien pleguan obren gauzatzeko epea 18 hilabetekoa izango zela adierazten zela, baina IZA enpresak hamalau hilabetetan egingo zuela adierazi zuela eta horrela jaso zutelaa 2017ko uztailan sinatu zuten kontratuan.

Une honetan, beraz, Udalak ez daki obrak noiz bukatuko diren, obren harrera egiteko beharrezkoa den akta ez dutelako sinatu oraindik.


Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek Osoko Bilkura berezia egin dute



Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan Osoko Bilkura berezia egin zuten Elgoibarko ikasleek martitzenean. IES Elgoibar, Meka, Ikastola, Herri Eskola eta IMHko 60 bat ikaslek hartu zuten parte. Aurtengo ikasturtean hondakinen gaia landu dute Eskolako Agenda 21 programaren baitan, eta egoeraren diagnostia egin ostean, udalbatzarrean aurkeztu zituzten herri jasangarri bat eraikitzeko eskaera eta proposamenak. Besteak beste, ondorengoak eskatu zituzten: zaborra modu egokian sailkatzeko edukiontzi eta zakarrontzi gehiago jartzea, edukiontziak pedaldunak izatea, ikastetxeetako hondakin bereziak biltzeko edukiontziak jartea eta herritarren kontzientzian eragiteko kanpainak abiaraztea. Udal ordezkariak adi entzun zituzten ikasleen eskaerak, eta erantzunak ere eman zizkieten. Era berean, ikastetxeei esker eman zizkieten, Eskolako Agenda 21 egitasmoan egindako lanagatik.

Aitz Beltz tabernak irabazi du Mendaroko pintxo lehiaketa

Bederatzi tabernak hartu dute parte aurtengo Mendaroko pintxo lehiaketan, eta Aitz Beltz tabernak irabazi du epaimahaiaren saria. Bigarren sailkatuak Txirristaka eta Menditxo izan dira puntuazio berberarekin, eta hirugarrena, Uztargi. Herritarrek, aldiz, Menditxo tabernako pintxoari eman diote boto gehien. Botoa eman duten herritarren artean, Irati Alkortari tokatu zaio Aitz Beltz tabernan gastatzeko 50 euroko bonoa, eta Rosa Babarrori Menditxo tabernan gastatzeko. Giro onean joan da aurtengo lehiaketa, eta jende askok hartu du parte. Zapatuan Bizi Poza txarangak alaitu zuen giroa, eta domekan, aldiz, Trapu Zaharra taldeak kale antzerkia egin zuen.



Genero berdintasunari buruzko hitzaldia jubilatuen biltokian

Adinekoen artean genero berdintasunak izan behar duen tratamenduari buruzko hitzaldia antolatu dute datorren eguaztenerako. Ertzaintzak eta Udaltzaingoak emango dute, hitzaldi-elkarrizketa formatuan. 17:00etan izango da ekitaldia, jubilatuen biltokian. Elgoibarko Udalak babestutako jardunaldia denez, doan izango da, eta herriko jubilatuz guztiak daude gonbidatuta.

Rosario Garatek 100 urte bete ditu



Rosario Garate Goiazun elgoibartarrak 100 urte bete zituen maiatzaren 3an, eta bihar ospatuko du mendeurrena familiako guztiekin. 40 bat lagun batuko dira bere bueltan. 11 neba-arreben artean laugarrena da Rosario. Lau seme-alaba ditu, 10 biloba eta 21 birbiloba. Sasoiko iritsi da 100 urtera. Lan asko egindako emakumea da, eta horixe izan da hain zuzen ere bere bizitzaren motorra: lana. Bihotz onekoa eta besteei laguntzeko emakumea dela esan du haren alaba Rosa Marik.

Hautsak harrotu ditu Larraskandako tiro eremuaren itxierak



Mendaroko Udalak Larraskandako tiro eremua itxi izana gogor salatu zuen joan zen barixaku iluntzean Gipuzkoako Ehiza Federazioak sare sozialen bidez. Tiro eremua itxi izana ehi-zaren eta Gipuzkoako tiratzaileen kontrako erasotzat jo du Gipuzkoako Ehiza Federazioak eta errespetu falta egotzi dio Mendaroko Udalari. Barixakuan bertan etorri zen Mendaroko Udalaren erantzuna. Mendaroko Udalak Federazioari erantzun dio inguru hori interes natural handiko gunea dela eta hala jasota dagoela hirigintza planaren 10. artikuluan, eta horrenbestez, legea bete baino ez duela egin. Tiro eremua dagoen lekua eremu karstikoa dela jaso du Mendaroko Udalak idatzian, eta ehizarako erabiltzen dituzten berunezko perdigoiek akuiferoetara filtratzen den ura kutsa dezaketela. Udalak nabarmendu du ez duela inoren kontra egin, baizik eta herritarren osasunaren alde, beste ezeren gainerik uraren kalitatea eta herritarren osasuna lehenesteko betebeharra duela iritzita.

1996. urtean zabaldu zuten Larraskandako tiro eremua, eta Gipuzkoako Ehiza Federazioak kudeatu du ordutik. Ehiztariak eurak trebatzeko ez ezik txakurrak ehizarako trebatzeko ere baliatzen zuten tiro eremua ehiztariak, eta berriki tiro eremura arteko errepide zatia konpondu eta azpiegiturak berritzeko baimena eskatua zuen Federazioak. Baimen-eskaerari, baina, ezetza eman dio Udalak, esandako arrazoiak arrazoituta. Hala dio hitzez hitz Udalaren idatziak: "Arkitektoaren txostenaren arabera, bulnerabilitate handiko gune bat da eta ez da konpatiblea ehizari lotutako aktibitatearekin. Baita ere, Mendaroko hirigintza planaren 10. artikulua zonalde horretan mota horretako aktibitateerik ez garatzea arautzen du. Legeak eta adituak aholkuak babesten dute gure erabakia. Mendaroko ikurra den uraren kalitatea eta gu denon osasuna lehenesten ditugu beste gauza guztien gainerik, eta erabakia ildo horien barruan hartu dugu". Gipuzkoako Ehiza Federaziotik esan dute, baina, prest daudela auzitara jotzeko, ehiztarien eta tiratzaileen eskubideak babeste aldera.

3.700 marihuana landare atzeman dituzte Elgoibarren

Ertzaintzak polizia operazioa jarri zuen martxan martitzenean Elgoibarko industrigune bateko pabilioi abandonatu bat miatzeko. Bertaratutako ertzainek bi nabe miatu zituzten, eta 3.700 marihuana landare atzeman zituzten. Azpiegiturak marihunana landatzeko beharrezkoak diren elementuz hornituta zeuden: Argiztapen berezia, haizagailuak, aire filtroak, ke erauzgailuak... Hori guztia martxan egoteko kontsumo altuko instalazio elektrikoa zeukan pabilioiak. Horrez gain, marihuana kukuluak prestatu eta lehortzeko gunea ere zeukan, prentsa, deshidratatzeko makina, pisua eta kukulu lehorrez beteriko kaxak ere zeuden. Miaketaren unean hiru lagun identifikatu zituzten ertzainek, eta epailearen aurrean deklaratu beharko dute, osasun publikoaren ustezko delituagatik. Osasun Departamentuan analizatzeko laginak hartu ostean, landare guztiak errotik moztu zituzten, ondoren suntsitzeko.

50.000 euroko laguntza, gazteen alokairua sustatzeko

Elgoibarko Udalak 50.000 euroko diru-laguntza banatuko du 18 eta 35 urte bitartean dituzten elgoibatarren artean, gazteen emantzipazioa sustatzeko. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko, eta maiatzaren 31n bukatuko da. Interesatuak Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana 2, behea) edo elektronikoki Udalaren web orriko Herritarren Atarian aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

Berdintasuna sustatzeko diru-laguntzak

Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko proiektu edo egitasmoak martxan jartzen dituzten elkarteei. 5.000 euroko diru partida aurreikusitako Udalak gai honetarako. Era berean, berdintasunaren aldeko programa zehatzak garatzen dituzten Elgoibarko emakumeen elkarteentzat bideratzen diren diru-laguntza deialdia ere zabalik dago. Horretarako, 3.000 euro erabiliko dira. Bi deialdietarako eskaerak egiteko epea maiatzaren 30ean amaituko da. Interesatuak Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana 2, behea) aurkeztu beharko dute eskaera txostena.



Leire Esnaola, Oihana Lizarralde eta Nadia Hadi.

► LEIRE ESNAOLA, OIHANA LIZARRALDE ETA NADIA HADI SAN LAZARO EGOITZAKO ERIZAINA, ERIZAIN LAGUNTZAILEA ETA HARRERAKO LANGILEA

Lan hitzarmenaren aldeko borrokan jarraitzen dute Gipuzkoako Zahar etxeetako langileek. San Lazaro egoitzan ere maiatzaren 7an hasi zuten azkeneko greba eta gaur bukatuko dute, baina mobilizazio gehiago izango direla aurreikusten dute, borondate politikorik ez diotelako ikusten Gipuzkoako Foru Aldundiari patronalak eta sindikatuek sinatu duten akordioarako oinarria finantzatzeko (Gipuzkoako Foru Aldunditik ez dute baloraziorik egin nahi izan. Lerro hauek idazteko unean, negoziazioak etenda zeuden, eta haserre, langileak. Gipuzkoan, 5.000 bat lagunek egiten dute lan sektore honetan eta gehienak emakumeak dira. Langileek zaintzari balioa emateko eskatu dute, eta 2017tik berri ez zaien hitzarmena eguneratzeko.

- AINARA ARGOTIA -

“Greban bakarrik ez, zahar etxeetan urte osoan gaude gutxieneko zerbitzuetan”

◆ **lazko irailetik protestan ari zarete Gipuzkoako zahar etxeetako langileak, baita San Lazaro egoitzakoak ere. Gipuzkoan 5.000 langile inguru zarete guztira; Elgoibarren, 45 bat. Zein da zuen egoera? Zer da eskatzen duzuen?**

Oihana Lizarralde: Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako da gaur San Lazaro egoitza eta hark zer erabaki zain gaude, bera delako auzi honetan ardura-

dun nagusia [2015eko maiatzaren 7an sinatu zuten Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak San Lazaro egoitza eskuz aldatzeko hitzarmena. Ordura arte udal egoitza zen]. Izan ere, egoitza berez azpikontrataturako enpresa batek kudeatzen badu ere (Biharko Gipuzkoa S.L.), zerbitzua Aldundiarena da. Eta zer eskatzen dugun? Gure lan hitzarmena berri-tzea, 2017tik ez zaigulako berri-tzea. Labur esateko, ratio hobek, atsedendald ordain-

duak, lan sarien igoera eta aparteko sari egokiagoak eskatzen ditugu. Gure sektorea oso sektore feminizatua da, eta soldaten arrakala oso handia da. Gu hirurok lanaldi osora ari gara lanean, eta zori-nekoak gara gure lankide askoren ondoan, askok oso lanaldi laburreko kontratuak dituztelako, bi-hiru ordukoak ere bai.

Leire Esnaola: Gure lanetara ezin iritsita gaude, beti erlojuaren kontra gabiltza,

egoiliarrei merezi duten besteko arreta eskaini ezinda. Horregatik, lehen esandako baldintzak hobetzeaz gainera, lanaldi partzialak dituztenei lanaldi osoko kontratua egitea eskatzen dugu, egoiliar bakoitzari minutu gehiagoko arreta zuzena eskaini ahal izateko. Gipuzkoako datu guztien batezbestekoa kalkulatu dute, eta batez beste, eguneko, 92 minutu eskaintzen zaizkio egoiliar bakoitzari. Eta ez dezagun ahaztu egoitzetan bakoitzak bere ahalein arabera ordaintzen duela, baina berez plazak hilean 3.000 euro inguru balio dituela, eguneko 100 euro inguru. Familiek kontuan hartu beharko lukete hori: egiten duten ahalegin ekonomikorako euren senideek eguneko 92 minutuko arreta zuzena baino ez dutela jasotzen.

♦ **Ratioa hobetzea eskatzen duzue. Gutxieneko ratioak zenbatekoa izan beharko luke zuen ustez?**

Nadia Hadi: Gutxienez bi ordukoa.

♦ **Soldata arrakalena aipatu duzue. Sektore feminizatua da zuena. Uste duzue horrek eragina duela soldaten zenbatekoan?**

O.L.: Zalantzarik gabe, bai. Bide garbiketa sektorekoek dituzten soldatekin alderatzen baditugu gureak, guk %30 gutxiago kobratzen dugu. Baina bide garbiketa sektorea gizonena da gaur ia oso osoan, eta gurea, aldiz, emakumeena. Hor dago aldea. Gure lana ez da baloratzen. Ahoa betetzen zaie denei zaintzaren kontuarekin, zaintzari duen balioa aitortu beharrarekin eta zaintzailea zaindu beharrarekin, baina gero, hau da duguna. Kea saltzen ari zaizkigu. Batzar Nagusietan gure lau patronaletako presidente batek esan ere egin zuen berak ez zuela hemen arazorik ikusten, sektore honetan langileen gehienak emakumeak zirelako eta hala izango zelako beti, edadetuak ez dituztelako ustez zaintzaile gizonetakoak nahi eta guk geuk, emakumeok, oso barneratuta dugulako zaintzalanak gure ardura direla. Hori bota arren, batzarrean zeudenetako inork ez zuen erreakzionatu biharamunera arte. Biharamunean konturatu ziren handitoxa bota zuela. Atera kontuak!

♦ **Zer sentitzen duzue instituzioetatik eta abarretatik zaintza-lanak ikusgarri egin behar direla esaten dutenean?**

L.E.: Amorrarazi egiten naiz, esaten dutena ez delako ezkontzen egiten dutenarekin. Zaintza urte osoko lana da. 365 egun urtean, 24 ordu egunean. Hemen ez dago jai-egunik; zaintzan ez dago etenik, ezin du egon; denon eskubidea da gure bizitzako azken urteetan ere merezi dugun zaintza jasotzea.

O.L.: Horregatik gure lanari duen balioa aitortzeko eskatzen dugu, eta horri lotuta, jai-egunetan egiten dugun lanak ordain hobea izatea. Era berean, eguneko atsedendialdiak ordainduak izatea ere eskatzen dugu. Guk hori badugu Elgoibarren, ekin eta ekin lortu genuelako zorionez, baina Gipuzkoan, oro har, zazpi orduko lanaldian hamar minutuko atsedendialdi ordainduak dituzte, eta atsedendialdi horiek gutxienez hogeit hamar minutukoak izatea eskatzen dugu. Zentro askotan hogeit hamar minutuko atsedendialdi egiten dituzte, baina hamar minutu bakarrik ordaintzen dizkiete langileei eta beste hamar minutuak itzuli egin behar izaten dituzte. Eta lau urteko hitzarmenean, KPIa + %8a eskatzen dugu, lau urtetan banatuta. Horrekin soldata arrakala txikitu nahi dugu. Badakigu golpetik ezingo dela arrakala hori amaitu, baina amaitzera egin behar dugu.

“Familiek egiten duten ahalegin ekonomikorako egoiliarrek 92 minutuko arreta zuzena jasotzen dute egunean”

- LEIRE ESNAOLA -

♦ **Hirugarren greba aldia duzue apirilaz geroztik. Aurreneko deialdia apirilaren 1etik 12rako izan zen, hilaren 26tik 30erako gero, eta maiatzaren 1ean hasi zenuten gaur bukatzeko duzuen hau. Nola zaudete?**

O.L.: Gaur gaurkoz, ez dugu grebei eutsi beste irtenbiderik ikusten. Aurreko etapen, greba mugagabe bat egin genuen, baina

psikologikoki oso gogorra izan zen. Egia da beste egoera bat zela ordukoa, Foru Aldundian EHBilduk agintzen zuelako eta gure alde zegoelako, eta dirua mahai gainean zegoenez, bagenekielako lehenago edo beranduago konponduko zela, baina oraingo egoera oso ezberdina da, eta argirik ikusten ez dugunez, ez gara ausartzen greba mugagabea hastera.

L.E.: Eta horri gehitu zaila dela greba egitea erabakitzea. Ez da makina batzuk gelditzea. Guk pertsonekin egiten dugu lan, ahalmenak murriztuak dituzten pertsonekin, ezinbestean behar gaituztenekin. Grebari bai esatea ez da erabaki erraza, eta buelta asko eman dizkiogu denok ere, baina ez daukagu beste biderik. Guk 24 ordu pasatzen ditugu egoiliarrekin eta inork baino hobeto ezagutzen ditugu haien beharrak. Parte emozionala ere hor dago. Kaltetuak egoiliarrek dira, jakina, baina inork ez dezala pentsatu guri ez zaizkigunik inporta. Presio psikologiko handia sentitzen dugu. Greba egin ahal izateko ere, hemen ari gara eginahalak egiten dena ondo lotuta uzteko, eurei ahalik eta gutxien eragiteko. Pentsa zer den hori! Gure protesta ikusgarri egin nahi dugu, baina gu geu ari gara aurrez dena lotzen, kaltea minimizatzeke.

O.L.: Egoitzan eguneroko eguneroko egin beharrekoak daude, eta gero badaude beste lan batzuk, atzazkalak moztea izan daitekeenak adibidez, aldi batez laga daitezkeenak egin gabe, baina greba bukatzen denerako pilotzen direnak. Lan estra izaten dugu gero. Tailerrean, makina gelditu eta produkzioa eteten denean, kaltea ekonomikoa izaten da huts-hutsean, baina gurean, ez. Kuantifikatu ez daitezkeen minutu asko daude gure lanean. Askotan gertatzen zaigu ikustea egoiliar bat triste antzean. Halakoetan badakigu behar duena bere ondoan jarri eta entzutea dela, baina guk astirik ez dugu horretarako. Gaitasunak murriztuta dituzten pertsonak dira, eta guk ezin diegu esan bi minutu dituztela janzteko, baina ezin diegu ezta ere hogeit hamar minutu eman, guk ez daukagulako denborarik. Eta gero entzuten dituzu erakundeetatik esanez arreta

personalizatua eskaintzen zaiela, euren autonomia lantzen dela.... Nola, baina! Ezin da barren!. Begira, etxetik datoze-nean bakarrik jateko gai direla esaten digute senideek, eta izaten dira, baina ordubete behar izan dute, eta jakina, guk ezin diegu behar duten denbora hori eman, bazkaltzen ordubete ematen badute, gero ezingo dutelako bazkalosteko lorik egin, ezingo dielako inork lagundu oheratzen.

Saltzen dutena ez da egingarri, eta badakite. Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu izarra dena (Adinberri) finantzatzeko behar den dirua da gure lau urterako hitzarmena berritzeko beharko litzatekeena, eta jakina, Adinberrirako badute, baina guretzat ez. Nola nahi dute gauzatu proiektu izar hori langileak egoera prekario honetan gaudela? Greban bakarrik ez, zahar etxeetan urte osoan gaude zerbitzu minimoetan.

♦ **Martxoaren 8ko grebaren harira emakume askori entzun geniena entzun dugu zuen ahotan. Greba egin ahal izateko aurrez lanik handienak eginda utzi behar hori.**

L.E.: Hala da-eta. Martxoaren 8an grebarako arrazoiekin bat egin zuten emakume askok ikusiko zuten euren burua egoera horretan. Greba egin ahal izateko, euren arduruan gelditzen diren zaintza-kontuak aurrez lotzen.

♦ **Zer diote egoiliarrek eta haien senideek auzi honetaz?**

L.E.: Egoiliarrek dira gure babesik handiena Elgoibarren. Gipuzkoan, bai, zahar etxeen erabiltzaileen senide talde bat elkartu da eta agertu du bere haserrea. Pertsonala falta dela salatu dute eta lan-karga gehiegizkoa dela. Elgoibarko kasuan, baina, ez da mugimendu handirik izan, hein handi batean Eusko Jaurlaritzak zehazten dituen gutxieneko zerbitzuek estali dutelako greba. %80ko zerbitzu minimoa ezarria du Jaurlaritzak, eta senideek esaten digute konturatu ere ez direla egin greban gaudela. Eta hein batean, normala da, mugimendu handi-neko orduetan denok gaudelako lanean. Egoiliarrek eta guk igartzen dugu greba-

ren eragina, egin beharrekoak egiteko denbora gutxiago daukagulako langileok eta horrek eskaini beharreko arretan eragin zuzena duelako, baina, jakina, oinarriko betebeharrak betetzen dira.

O.L.: Ikusten duguna da herritarrek ez dutela gure egoeraren berri, eta batzuetan iruditzen zaigu jendeari ezer gutxi inportatzea diola zahar etxeetako gatazkak. Greba hasi genuenetik ostegunero egin dugu elkarretaratzea egoitza aurrean, eta inoiz ez da inor etorri guri babesa agertzera. Ezta feministak ere. Elgoibarren senideek idatzi bat bidali dute Gipuzkoako Foru Aldundira diru-kontuak argitzeko eskatzen, baina oraindik ez dute erantzunik jaso. Ez delako broma diru-kontuena. Begira, enpresek %100 kobratzen dute Gipuzkoako Foru Aldunditik gu greban gauden bitartean ere, baina guri %80 ordaintzen digute, eta egoiliarrek %100 ordaintzen dute. Enpresak, beraz, oso eroso daude. Greba zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta gehiago irabazten dute. Horregatik, gure egoiliarren senideek %20ko diferentzia hori ez ordaintzea eskatzen dute, egoitzan dituzten senideek ez dutelako diru horri dagokion zerbitzua jasotzen.

“Greba egitea ere ez da erabaki erraza guretzat, gaitasunak murriztuta dituzten pertsonekin lan egiten dugulako”

- LEIRE ESNAOLA -

♦ **Zer diote Foru Aldunditik?**

O.L.: Ezin direla enpresen eta langileen arteko negoziazioetan sartu. Esan hori esaten digute, baina zerbitzua euren da! Kontua da negoziazioetan ari diren bi aldeek, enpresen gehiengoak eta sindikatuen gehiengoak, adostu zutela akordiorako oinarria, baina Aldundiak atzera bota zuela, ez zegoelako prest akordio hori gauzatzeko behar zen dirua jartzera. Baina dirua jartzeko obligazioa daukana ez baldin bada negoziatzera jartzen, zer etorkizun daukagu guk? Borondate politikoa falta da, ez dago beste-

rik hemen. Sektore hau horren feminizatua ez balitz, jarriko lukete dirua, kontua ez delako dirurik ez dagoela, dirua beste gauza batzuetara bideratzen dutela baikik. Eta egoera horretan, negoziazioak etenda daude gaur gaurkoz.

L.E.: Negoziatzeko orduan ez gaituzte kontuan hartzen. Gu geu ere ez gara oso berandura arte mobilizatu. 2013ra arte sekula ez ginen pankarta baten atzera bildu. Gure lanari sekula ez zaio baliorik eman. Askok uste dute edozeinek balio duela gure lana egiteko, emakumea izanez gero behintzat. Inork ez du pentsatzen lan hau ere profesionaltasunez egin behar dela, eta horrek dakar gure lanak behar besteko aitortzarik ez izatea. “Ez daukazu lanik? Ba zaindu adinekoak!, horretarako edozein andrak balio du-eta”. Uste hori oso zabaldua dago. Eta horrenbestekoa da eskaria eta horrenbestekoa eskaintza, lau euroren truke egiteko lana dela sinistuta dagoela jendea. Denok elikatzen dugu prekariedade hori. Gu 45 langile gara San Lazaron, eta sukaldari bat, mantentze zerbitzuetako bat eta harrerako beste bat kenduta, denok gara emakumeak.

♦ **Adierazgarria da emakume kopurua eta adierazgarria gizonak zertan ari diren ere.**

O.L.: Bai, bai. Zaintza-lanak emakumeenak dira ia eksklusiboki.

♦ **Argirik ikusi ez arren, borrokan jarraitzeko asmoa duzuela diozue. Nola bizi duzue egoera hau zuen lantaldean?**

O.L.: Karga psikologiko handia dugu. Gizarteak oso barneratuta dauka adibidez irakasleek merezita dituztela dituzten oporraldiak, baina inork ez du pentsatzen gudan. Zaintzaileak inork ez diu zaintzen hemen. Gure lantokietan ezegonkortasun handia dago. Aukera izan bezain laster, alde egiten dute gurera iristen diren langile berriek eta arazoak daukagu oporraldietako txandak betetzeko ere. Eta pentsa zein garrantzitsua den gurean talde egonkor bat izatea! Adinekoentzat oso garrantzitsua da erreferentziatzeko pertsona bat izatea zaintzen, baina inork ez dio horri erreparatzen.



Zuen kexak, galderak edo txalokak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Jendeak errepidea gurutzatzen du BM eta Mercadona artean: "Mercadonara joateko igogailua dagoen arren, jende askok errepidea gurutzatzen du. Trafiko handiko ingurunea da hori, eta gainera errepideak zabalera handia dauka. Beraz, jendeak denbora behar du alde batetik bestera iristeko, eta arrisku egoerak sortzen dira. Ezbeharren bat egon aurretik, jendeari eskatu nahi nioke behar den lekutik gurutzatzeko".



Zaborra lurrera botatzen dute bizilagunek: "Mendaroko zenbait bizilagunek behar ez den tokian botatzen dute zaborra. Botilak eta horrelako zakarrak botatzeko badaude edukiontzi zehatzak, eta ez dira kaleko zakarrontzira bota behar, eta are gutxiago, lurrera. Errespetu apur bat eskatzen dugu".



Mendaroko Azpilgoeta auzoko aparkalekuak txatarria bat dirudi: "Azpilgoetako aparkalekua erabat utzita dago, eta txatarria baten itxura hartu du. Hondatutako auto eta kamioi zaharrez beteta dago aparkalekua, eta ez du itxura onik ematen. Uste dugu hori ez dela horretarako lekua".



Plaza Txikiko zuhaitzak kendu egin behar al dituzte? Aita Agirre erakina egiteko lanen eraginez, Plaza Txikiko zuhaitzak kendu egin behar dituztela adierazi dute hainbat herritarrek, eta jakin nahi dute obrak amaitu ondoren berriro jarriko dituzten ala ez. Iosu Arraiz Hirigintza Sailko arduradunak esan du baietz, zuhaitz horiek berri jarriko dituztela, eta gainera, aparkalekuak eta haurrentzako parke berria ere egingo dituztela Aita Agirre plazan.



Argazkiak: Inaki Aragon



▶ ANDONI ARMENDIA ESKUBALOI JOKALARIA

Andoni Armendiak hartu du erabakia eta denboraldi amaieran eskubaloia lagako du. 33 urte ditu, 18 denboraldi egin ditu Sanlon, eta azken 11 denboraldietan Alcorta Forging Group senior taldeko kapitaina izan da. Azken bi urteotan belauneko lesio batek uste baino lan handiagoa eman dio, eta argi ikusi du eskubaloia lagatzeko ordua iritsi zaiola. Etxean jokatu zuten azken partidari omenaldi beroa egin zioten Sanloko ki-deek, eta hunkituta, eskerrak eman dizkie guztiei.

- AINHOA ANDONEGI -

“Penaz utziko dut eskubaloia, baina egindakoarekin pozik noa”

◆ Zer dela eta hartu duzu eskubaloia lagatzeko erabakia?

Urte asko dira dagoeneko, eta alda-keta baten beharra daukat. Gainera, fisikoki ere ez nago guztiz ondo. Belauna nahiko minduta daukat azken urteetan, eta aurtengo denboraldian nahiko lan

eman dit. Lesioen eraginez, luzea egin zait denboraldia. Egia esateko 18 denboraldi hauetan asko errespetatu naute lesioek, baina orain dela zortzi bat urte lotailua apurtu nuen, eta ordutik ondo egon banaiz ere, azken urte honetan minez ibili naiz, belauna handituta... Ba-

nekien azken denboraldia izango zela eta ahal nuen moduan iritsi behar nuen bukaerara. Iazko denboraldian ere uzte-kotan egon nintzen, baina beste urtebe-tez jarraitzea erabaki nuen. Aurtengoa benetan izango da azkena.

◆ Etzeko azken partidari ezusteko sor-

presa eman zizuten Sanloko kideek. Nola hartu zenuen?

Zerbait espero nuen, baina ez nuen uste horrenbesterakoa izango zenik. Gehiegi izan zen. Zale pila bat etorri ziren kiroldegira: etxeokak, lagunak, aurreko urteetan nirekin jokatuakoa... Txapel bat eman zidaten, kamiseta bat, argazki bat eta bi taldeek pasilo moduko bat egin zidaten ni bertatik pasatzeko. Ez dut uste hori guztia beharrezkoa zenik, baina pozik hartu nuen eta eskerrak eman nahi dizkiet guztiei. Emozioz beteriko unea izan zen.

♦ Kirol alorrean, zein lorpen eskuratu dituzu 18 denboraldi hauetan?

Seniorretan Lehen Nazional Mailara igotzea lortu genuen, eta hori lorpen handia izan zen. Igotzea lortu genuen, baina arazo batzuen ondorioz, taldea desegin egin zen, eta maila horretan jokatzeari uko egin behar izan genion. Hurrengo denboraldirako talde berria sortu genuen, eta oker ez banabil, sei denboraldirako bost kategoria igotzea lortu genuen. Lurraldekako Bigarren Mailan hasi ginen, eta berriz lortu genuen Lehen Nazional Mailara igotzea. Dagoeneko izango dira zortzi bat urte gorengo maila horretan gaudela.

♦ Noiz eta nola hasi zinen eskubaloian jokatzen?

Eskubaloian jokatu aurretik, futbolearen hasi nintzen, nire lagun gehientsuenak bezala. Atezain postuan jokatzen nuen. Eskolarteko jokoen barruan, baina, saskibaloia, futbola eta eskubaloia praktikatzen genituen, eta konturatu nintzen eskubaloia ere gustuko nuela. 15 edo 16 urterekin futbola laga eta eskubaloian hasi nintzen. Hasi eta berehala utzi egin behar izan nuen, osasun arazo bat izan nuelako, baina gero berriz itzuli nintzen, eta gaur arte. Erabat harrapatu ninduen eskubaloia, eta ez naiz damutzen futbola utzi eta eskubaloian hasi izanaz.

♦ Urte hauetan guztietan, zer eman dizu eskubaloiak, eta zer eman diozue zuk eskubaloiarri?

Eskubaloiak dena eman dit, ezin dut gehiago eskatu. Neskalaguna ere esku-

baloiak eman dit. Berak ere jokatzen zuen Sanlon, eta eskubaloiarri esker ezagutu genuen elkar. Une honetan bera da gure taldearen zale handienetakoa. Eta nik eskubaloiarri ere ahal nuen guztia eman diot. Norberak badaki non dauden bere mugak, baina ni gustura geratu naiz egin dudanarekin. Penaz utziko dut eskubaloia, baina egindakoarekin pozik noa. Eta badakit beste bost urte jarraitu izan banitu ere, penaz joango nintzatekeela.

“Klubeko guraso eta boluntario guztiek sekulako lana egiten dute”

♦ 18 urteko ibilbidearen zein balorazio egiten duzu?

Oso positiboa. Gauza pila bat ikasi ditut eskubaloiarri esker. Entrenatzaile oso onak eduki ditugu, eta gauza pila bat irakatsi dizkirate. Asobal ligan jokatutako bi entrenatzaile izan ditugu azken 11 urte hauetan, Juanma Lopez eta Vuci [Gojko Vucinic], eta eskubaloiarekiko pasioa daukate biek eta hori transmititu digute. Talde bateko kide izate hutsagatik bakarrik gauza pila bat ikasten dira. Eskubaloia talde-jokoa da, eta jokalarri batek berak bakarrik ezin du ezer egin. Taldean jokatzen ikastea garrantzitsua da. Denon arteko lana da, eta denok norabide berean jokatu behar dugu, bestela gauzak ez dira ondo iriteten. Talde-lanak disziplina ere erakusten du, eta baita ere, taldekideak errespetatzen. Badakizu huts egiten baduzu entrenamendu batean edo partida batean ez diozula zure buruari bakarrik kalte egiten, baizik eta taldeari, eta hori balio garrantzitsua da. Ni lanean nago, beste batzuk ikasten daude, eta Lehen Nazional mailan eskubaloiak ordu asko eskatzen ditu: entrenamendua, partidak batzuetan urrun tokatzen zaizkigu... hori dena uztartzea ez da erraza, eta norbe-

ragatik bakarrik balitz utzi egingo genuke behin baino gehiagotan, baina taldekideengatik hutsik ez egiten saiatzen gara. Gustura egiten dugu, baina batzuetan sakrifizioa ere eskatzen du.

♦ Azken 11 denboraldietan taldeko kapitaina izan zara. Zer suposatu dizu horrek?

Nire kasuan ez da izan karga berezia kapitaina izatea. Nik uste dut aintzinasunagatik izan naizela ni taldeko kapitaina. Ez zait tokatu arduraz berezirik hartzea. Taldean giro ona izan dugu beti, eta ez dut inolako arazorik konpontzeko beharrik eduki. Taldeko bat gehiago izan naiz beti.

♦ Zein da eskubaloiak Elgoibarren hainbesteko indarra edukitzearen sekretua?

Horren meritu guztia Sanloko zuzendaritzako kideena da. Klubean dauden guraso eta boluntario guztiek sekulako lana egiten dute, eta beraiek lortu dute eskubaloia indartzea Elgoibarren. Hori bai dela eskertzekoa! Nik jaso dudan omenaldia baino gehiago merezi dute horiek. Azken batean jokalarri pila bat daude. Une honetan seniorretan hiru talde gaude, bi taldetarako gehiegi geunden eta hirugarren taldea osatu dugu aurten. Esan nahi dut jokalarriak aurkitzea ez dela horren zaila. Askoz gehiago kostatzen da lanerako prest dagoen jende konprometitua aurkitzea. Lan handia egin dute eskubaloia aldea, eta hori afizioan ere igartzen da. Jende pila bat etortzen da gure partidak ikustera, eta sekulako giroa egoten da kiroldegian.

♦ Eskubaloia laga ondoren, zer egingo duzu?

Ez dakit. Eskubaloian jokatzeari utziko diot, baina ez naiz Sanlotik oso urrutira joango. Laguntzeko prest nago. Entrenatzaile titulurik ez daukat, eta ezta talde bat entrenatzeko besteko pazientziarik. Ez dut nire burua entrenatzaile ikusten. Partidak kanpotik jarraitzea oso gogorra egiten zait, eta askoz gehiago sufritzen dut aulkian kantxa barruan baino.



1959

Aste honetako erretratu zaharra Carmen Soraluzek ekarri du BARREnera. Joxepa Odriaren ezkontza egunean ateratako familia-argazkia da, 1959. urte ingurukoa. Guraso eta neba-arrebekin ageri da erretratuan Joxepa. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkikoen izenak: **Goian:** Tomas Odria, Esteban Odria, Julian Odria eta Juanito Odria. **Erdian:** Miren Odria eta Jexusa Odria. **Behean:** Rosa Maria Odria, Joxepa Odria, Fermina Barrenetxea, Ignacio Odria eta Begoña Odria.

HARATZAGO

IBILALDIA 2019 - **LEKEITIO**
 Maiatzak 19, igandea

Autobusa antolatu dugu Bizkaiako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko.

- Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geltokia)
- Itzulera: 19:30 Lekeitio-tik
- Prezioa: 11 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 10)
- Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da; azken eguna: maiatzak 16. (autobusa irtetzeko gutxieneko kopurua 30 pertsona).

Antolatzailea:

Babeslea:

Eguaztenean zabalduko dute Taupadaren 40. urteurreneko argazki erakusketa

Manu Sanchezek 40. urteurreneko ekitaldietan ateratako argazkiekin erakusketa osatu du Taupada antzerki taldeak eta eguaztenean inauguratuko dute. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan, eta saio horretan performantzea ere egingo dute. Maiatzaren 24ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik



20:30era. Hilaren 25erako, bestalde, bazkaria antolatu dute, eta tiketak salgai daude Jai Alai eta Lanbroa tabernetan. Helduek 20 euro ordaindu behar dituzte, eta 12 urtetik beherakoek, berriz, 10 euro. Bazkal aurretik, antzerki tantak eskainiko dituzte kalean zehar, eta bazkalostean antzerkia egingo dute Maalako parkean. Horrez gain, 40 urteotan egindako antzerkien bideoa jarri dute ikusgai Agirre sasterria zegoen lekolean. Taupadak 2017an bete zituen 40 urte, eta hauek izango dira urteurreneko azken ospakizunak.

'Tosca' opera, aurrez grabatutako bertsioan

Pucciniren *Tosca* opera emango dute gaur zortzi Herriko Antzokian, aurrez grabatutako formatuan. Hiru akto nagusi ditu obrak, eta drama, maitasuna, indarkeria eta heriotza uztartzen ditu. *Madame Butterfly* eta *La Boheme* obrekin batera, Pucciniren lanik ezagunenetakoa da. 20:30ean hasiko da emanaldia, eta bi orduko iraupena izango du.



Emakumeentzako jabeakuntza tailerren barruan, hausnarketa saioa antolatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak astelehenerako

Emakumeentzako jabeakuntza tailerren barruan, hausnarketa saioa antolatu du Berdintasun Sailak astelehenerako. Loredi Salegik gidatuko du saioa, eta emakumeen osasuna izango dute hizpide. Gure osasuna, emakumeen gauzak baino gehiago jarri diote izenburua saioari. Sexuak, generoak eta gizarteko beste hainbat gertakarik eragina dute emakumeen osasunean, eta horiei buruz hausnartuko dute. Hitzaldia elebitan eta doan izango da. 18:00etan hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Sormena eta euskara uztartzeko bigarren saioa domekan egingo dute

Familien artean euskararen erabilera sustatzea eta sormea lantzea ditu helburu *Artea familian* izeneko tailerrak. Joan zen domekan egin zuten lehen saioa eta datorrenean egingo dute bigarrenkoa.

Elgoibarko Izzarren Kiribilduz egitasmoak eta Egur arte tailerrak antolatu dute *Artea familian*, Udalarekin lankidetzan. Egur Arte Eskolak merkatu plazan daukan lekolean egin zuten lehen saioa eta bigarrenkoa ere leku berean egingo dute domekan, maiatzaren 12an, 10:00etatik 13:00etara.



Ixa Rodriguezek Oksana Romanova ukrainarra izango du aurkari Olaizagan egingo duten boxeo borrokaldian



Boxeo gaua izango da zapatukoa Elgoibarren. Sei borrokaldi antolatuta dituzte Olaizaga kiroldegian egingo duten boxeo jaialdirako. 19:30ean hasiko da. Amateur mailako boxeolariak lehiatuko dira lehen bost borroketan, hiru minutuko hiru roundetara. Azken borrokaldian boxeolari profesionalak lehiatuko dira. Ixa Rodriguez soraluze-arrak Oksana Romanova ukrainarraren aurka borrokatuko du, minieuli pisu-kategoriako borrokaldian. Bi minutuko sei roundeko borrokaldia izango da. Ixa Rodriguezek ez du titulurik jokoan izango Elgoibarren egingo duen borrokaldian,

baina bere asmo eta ametsak bete ahal izateko borrokaldi garrantzitsua izango dela jakinarazi zuen jaialdia aurkezteko martitzenean egin zuten agerraldian. Urtea amaitu aurretik Espainiako Boxeo Txapelketa jokatzeko da bere helburu nagusia, eta gauzak ondo badoaz, Europakoa gero. "Gipuzkoan jaiotako estreinako Espainiako eta Europako txapelduna izan nahi dut. Elgoibarren irabaziz gero, rankinean hobetu eta Espainiako Txapelketan lehiatzeko hautagaien artean egongo naiz. Orain 44. postuan nago munduko sailkapenean", azaldu zuen Sorabox taldeko boxeolariak. Bere burua

ondo prestatuta ikusten du Ixak, konfiantzaz dago eta ez zaio anbizioirik falta. Aurkari izango duen Oksana Romanova eskarmentu handiko boxeolaria dela nabarmendu zuen. "2011n egin zuen debuta profesionaletan eta esperientzia handia du, 226 round jokatu baititu 35 bat borrokalditan. Munduko bi txapelketa jokaturakoa ere bada eta Europako beste bi txapelketetan ere lehiatu da". Sarrerak 20 euroan salduko dituzte Olaizagako leihatilan eta 15 euroan eskuratu daitezke aurre salmentan, Olaizagan eta Maalako kioskoan.

Haimar Etxeberria azkarrena Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirrindulari lasterketan

Kadete mailako txirrindulariak lehiatu ziren, aurreko zapatuan, 27. Elgoibarko Lagun Taldea Sarian. Mintxetan hasi eta amaitu zuten 52 kilometroko proba eta Lasarte-Oria eta Usurbilgo Buruntzazpi taldeko Haimar Etxeberria txirrindulari berarra izan zen azkarrena. Ulma taldeko bi txirrindulari sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan, Aimar Erostarbe eta Danel Casais, hurrenez hurren. Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolako ordezkarien artean, Beñat Fernandez izan zen onena etxeko lasterketan.



Arg.: Lagun Taldea

Mailari eusteko partida garrantzitsua irabazi zion Haundik Deusto taldeari




Arg.: C.D. Elgoibar

Erregional Ohorezko Liga txapelketa bukatzeko hiru partida bakarrik falta dira, eta mailari eusteko partida garrantzitsua irabazi zuen Haundik, joan den zapatuan, Mintxetan. Elgoibartarrek 4-1 irabazi zioten Donostiako Deusto taldeari. Sailkapeneko 14. postuan dago Haundi, 39 punturekin, eta lau talde ditu atzetik. Postu bat beherago dagoen Allerruk 34 puntu ditu, 32 puntu Añorgak eta 29 puntu Deustuk. Hondarribia dago sailkapeneko zuloan, 13 punturekin, mailari eusteko aukerarik gabe. Azken hiru sailkatuek galduko dute maila, baina goiko mailetan diharduten euskal taldeek maila galduz gero, lau taldek galdu dezakete maila. Haundik Deban jokatu du asteburuan, sailkapeneko laugarren postuan dagoen Amaiak Bat taldearen aurka.

Goikoetxek bost altxaldiko aldearekin irabazi zuen Izeta IV.aren kontrako harri-jasotze apustua

Manol Albizu Goikoetxek nagusitasunez irabazi zuen Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a zarautzarraren aurka, joan den zapatuan jokatutako harri-jasotze apustua. Demak ikusmina piztu zuen herri kirol zaleen artean eta 700 bat lagun elkartziren Azpeitiko zezen plazan. Bi harri-jasotzailerik hamar minutuko hiruna txanda egin zituzten bakarka 125 kiloko harri kubikoarekin. Zozketak hala erabakita, Izeta IV. hasi zen lanean eta 40, 39 eta 37 jasoaldi egin zituen hiru txandatan, 116 altxaldi guztira. Goikoetxek 41 aldiz jaso zuen harria lehen txandan, bigarrenean, 40 aldiz, eta hirugarrenean, beste 40 alditan. Guztira 121 alditan altxatu zuen 125 kiloko harria, edo beste modu batera esanda, 15.125 kilo altxa zituen orduerdian. Apustua irabazita, 12.000 euroko diru poltsa bereganatu du Goikoetxek.

Arg.: Uztarría



IX. Morkaikoren Eguna, bihar

Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoa eta Finalista Eguna egun berean batu zituen Morkaiko Mendi Taldeak 2011. urtean, Morkaikoren Eguna izenarekin. Aurtengoa, bederatzigarrena, zapatu honetan (maiatzak 11) egingo dute. Elgoibarko Itzulitxoak 6:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta Itzulitxokoak 9:00etan, Kalegoen plazatik, eta 10:00etan, Idorbetik. Bigarren aukera hori aukeratzen dutenei ibilgailua Idorben aparkatzeko eskatu diete antolatzaileek eta ez Aubixa inguruko errepide bazterrean. Azkenik, Finalista Eguneko dominak banatzeko ekitaldia 13:30ean egingo dute Kalegoen plazan. Bazkalostean umeentzako jolasak egongo dira plazan Atxutxiamaikakoen eskutik eta 16:00etatik aurrera zabalduko dute umeentzako rokodromoa.

Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak azkarrenak Buetraitzeko igoera bertikalean

Hiru alditan jokatu da Buetraitzeko igoera bertikalea: 2014an, 2016an eta aurten, eta hiruretan Elgoibarko antxitxikiak gailendu dira. Iñigo Larizek lortu zuen garaipena estreinako edizioan, Iban Murua eta Ainhoa Lendinez nagusitu ziren 2016koan eta beste bi elgoibartarrek irabazi zuten proba, aurreko barixaku



Arg.: Goiëna

gauen: Iñigo Larizek gizonezkotan eta Ainhoa Lendinez emakumezkoetan. Parte hartzaileak 22:00etan irten ziren banan-banan, Arantzazuko aparkaleku azpitik, eta 2,7 kilometroan ia 800 metroko desnibel positiboa gainditu zuten Buetraitzeraino (1.305 metro) igotzeko. Larizek 27 minutu eta 16 segundotan osatu zuen igoera. Ia minutu bateko aldea atera zion bigarren egin zuen Iñigo Alzola (38:25) arrasatearrari. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez gailendu zen, eta probako errekorra ondu zuen gainera, 34 minutu eta bi segundoko denbora eginda.

Lizarrolara bizikleta irteera antolatu dute biharko

Mendaron egin duten txirrindularitza ikastaroari amaiera emateko Lizarrolara bizikleta irteera antolatu dute elkarlanean Arno Guraso Elkarteak eta Elgoibarko Lagun Taldeak. Irteera irekia izango da, ikastaroan parte hartu ez dutenei ere parte hartzeko aukera ematea erabaki baitute antolatzaileek. Herriko Enparantzatik irtengo dira, bihar, 10:30ean.

I. Uztargi Xake txapelketa

Mendaron xakea sustatzeko eta zaleek elkar ezagutzeko antolatu dute I. Uztargi Xake txapelketa. Maiatzaren 15ean hasiko da txapelketa eta hilaren 13a da izena emateko azken eguna. Izena emateko 653 715 375 telefono zenbakira deitu edo Whatsapp-a erabili behar da.

LANA.....
Eskeraerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia.
☎ 611 306 391

Garbiketarik egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Titulua daukat.
☎ 626 407 923

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat umeak eta adinekoak zaintzen eta garbiketara lanetan.
☎ 681 310 989

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. Gauzez edo asteburuetan ere lan egiteko prest.
☎ 632 893 515

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai.
☎ 643 772 326

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia.
☎ 632 576 630

Umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak edo umeak zaitzeko eta etxeko garbiketarik egiteko prest nago. Orduzko malgua daukat.
☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 632 862 059

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.
☎ 643 464 072

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez, etxean zein ospitalean.
☎ 602 355 271

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile titulua eta esperientzia dauzkat.
☎ 631 200 936

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 640 821 269

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat.
☎ 622 134 310

Umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat mendokotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen eta etxeko lanetan.
☎ 632 480 376

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak eta umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten.
☎ 602 811 319

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduzko malgua.
☎ 632 292 690

Neska euskalduna goizez umeak zaintzeko prest. 7:00etatik 9:30era eskolara eramango nituzke.
☎ 666 667 183

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.
☎ 602 360 443

Pertsona euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Titulua eta esperientzia handia ditut.
☎ 626 490 986

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketara lanak ere egiten ditut. Erreferentzia onak ditut.
☎ 689 571 882 / 666197 831

Edozein lan egiteko prest nago.
☎ 643 961 051

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta gauzez ere bai. Esperientzia, erreferentzia onak eta titulazioa ditut.
☎ 632 490 649

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.
☎ 671 989 434

Adinekoak zaindu eta garbiketarik egiteko prest. Asteburuetan ere bai.
☎ 657 363 453

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Malgutasun osoa.
☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest.
☎ 612 574 783

Ostalaritzan jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia.
☎ 602 811 319

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest.
☎ 664 087 760

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
☎ 688 825 514

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.
☎ 612 296 098

Eskaintzak

Estetikaria behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Bidali curriculumara: olamarsan@gmail.com

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. *buruagaltzen@gmail.com*

ETXEBIZITZAK.....
Gela bakarreko etxebizitza alokairuan, erosteko aukerarekin. Elgoibarko erdigunean. ☎ 660 042 159

Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 627 230 784

GARAJEAK.....
Garaje itxia alokatzen dut Trenbide kalean. Koixe batenzatsat lekua dauka.
☎ 670 406 748

LOKALAK.....
Lokala salgai. Olase 6, 66-4 pabilioia. 132,84 m² ditu, 1,6,5 x 8 metroko azalarekin. 7 metroko altuera du, bulego bat, komuna eta sukalde txiki bat.
☎ 943 743 628

KINTOAK.....
49koen kinto bazkaria ekainaren 1ean, Sigma jatetxean. 55 euro ordaindu behar dira kontu korronte honetan, maiatzaren 30erako: ES24 2100 4168 7521 0035 0521 (La Caixa). 13:00etan argazkia, elizan eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. Bazkaria, 14:30etan.

1959ko kintoen bazkaria ekainaren 1ean, Sigman. 13:00etan, luntxa Txarridunan, eta segidan, argazkia. Bazkaria, 15:00etan. 70 € sartu, hurrengo kontu korrontean, maiatzaren 25erako: ES09 3035 0007 250071137124 (Laboral kutxa).




ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Eraikin zahar batean bizi naiz. Obra egin berri dut etxean eta besteak beste trenkada (tabike) batzuk bota ditut, tekniko baten aholkularitzarekin. Obra iraun duen denboran kontu handiz ibili gara eraikinaren estrukturarari ez eragiteko, egurrezkoa delako. Hala ere, goiko bizilagunari arrakala batzuk agertu zaizkio etxean, eta konpontzeko eskatu dit. Konpontzeko betebeharra ote daukadan jakin nahiko nuke.

Eraikin zaharretan normala da proiektua egin zuen arkitektoak egin dako estrukturan prebisioa gaintzea. Normala da bere garaian proiektua egin zuenak zehaztu zituen oinarrietan ez beste batzuen gain jaustea karga. Horregatik, trenkadak bota eta karga habean gain uzten denean, ohikoa da goiko solairuak behera egitea apurren bat eta arrakalak sortzea.

Legeak dio bizilagunek eskubidea dutela euren etxeetan obrak egiteko, beti ere obra horiek eraikinaren segurtasunari, estrukturarari eta kanpoko itxurari eragiten ez badiote eta beste bizilagunen eskubideei kalterik egiten ez badie. Obra egin aurretik, komunitateko presidenteari jakinarazi behar zaio lehendabizi, baina hala ere, ez jakinaraztea ez da isunarekin zigortzen. Hala ere, eta goiko bizilagunari kaltea eragin bazaio ere, zuk egin dituzun obra horiek ez daude legez zigortuta, etxe barruko trenkadak ez daudelako berez etxearen kargak jasateko, azkenerako karga hori jasan badute ere.

Ondorioa: Komunitatearen ardura izango da forjatua aldatzea bere funtzioa egoki bete dezan eta ez dadin berriro halakorik gertatu.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Saioa!** Maiatzaren 7an, 11 urte! A ze neska handia! Patxo handi bat etxeko denon partez.




Zorionak, **Laida.** bihar 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **txa-peldun,** gaur 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Teo.** igandean 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Mikel,** asteazkenean 7 urte egin zenituelako. Etxeko guztion partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Peru,** gaur urte bat egin duzulako. Ondo pasa eta patxo handi bat familiako denon partez, eta bereziki, Paul eta Martinen partez.



Zorionak, **Ane.** 5 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Ekhi,** gaur 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zazpi dira pasatu, zazpi ditugu gozatu, lbonen urteak maiatzaren 10ean ospatu. Zorionak, **lbon,** maitea.



Zorionak, **Enaitz!** Igandean 5 urte! Aita-txo, amatxo eta etxeko guztien partez, muxu potolo bat.



Zorionak, **Nora,** maiatzaren 4an 5 urte bete zenituelako. Patxo handi bat.



Topa! 56 urte alkarri BAI esan zenitela! Segi goizero gauza bera esaten eta Aittola Zaharren ospatuko dogu. Nahia, Elsa, Maite, Iñaki eta Imanol.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€
 Argazki bikoitza: 7€
 Hirukoitza: 9€
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€
 Argazki bikoitza: 6€
 Hirukoitza: 8€
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN
 Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

IKASBAI
 A K A D E M I A

667 261 248
 (Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

IKASGO
 A C A D E M Y

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

IKASBAI
 KLASAK

- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

RFPS 183112

40. urteurrena
UZURI optika audio

ELGOIBAR - DEBA San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

► **Maiatzeko eskaintza:** Zure lentillak erostean, **10 €**ko balea eskuratuko duzu dendako edozein produktu erosteko.

► **Maiatzeko zozketa:** Moschino Fresh Couture EDT lurrin botea eta **POLICE** etxeko erlojua

Aurreko hilabeteko sarituak:
 ESTHER ARAKISTAIN AITZIBER OSORO JOSUNE FERNANDEZ

10 BARIXAKUA

10:30 Elgoibar Lagunkoia Taldearen bilera. Jubilatuen Biltokian.

21:30 Zine foruma: 'De óxido y hueso'. Loregi Salegik gidatuko du saioa.

11 ZAPATUA

Morkaiko Eguna

6:00 Elgoibarko Mendi Itzulia. Kalegoen plazan hasita.

9:00 Elgoibarko Itzulitxoa. Kalegoen plaza-zatik.

10:00 Elgoibarko Itzulitxoa. Idotorbetik.

12:00 Elgoibarko Itzulitxokoentzako mokadutxoa, Aiastian. Ondoren, denak batera jaitsiko dira herrira.

13:00 Nagusientzako bazkaria, elizako arkupeetan.

13:30 Finalista Eguneko dominak banatuko dituzte, Kalegoen plazan.

14:00 Umeen bazkaria, elizako arkupeetan.

15:00 Umeentzako jolasak Atxutxiamakakoekin eta sorpresa.

16:00 Rokodromoa.

17:00 Argazki erraldoia, Kalegoen plazan.

10:30 Txirrindularitza itzulia Lizarrolara. Arno Guraso Elkarteak eta Lagun Taldeak antolatuta.

19:30 Boxeo jaialdia. Kirol Patronatuak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

12 DOMEKA

11:00 Bigarren eskuko azoka Mendaroko frontoian.

13 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: 'Gure osasuna, emakumeon gauzak baino gehiago'. Berdintasun Sailak antolatuta, Loregi Salegik emango du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan.

15 EGUAZTENA

17:00 Hitzaldia: Genero berdintasuna adinekoen artean. Jubilatuen biltokian.

19:00 Argazki erakusketa: Taupadaren 40. urteurrena. Manu Sanchezen argazkiak. Kultur Etxeko sotoan egongo da ikusgai, hilaren 24ra arte. Inaugurazio ekitaldian performantzea ere egingo dute.

16 EGUENA

17:00 Ipuin kontalaria eta clown saioa: 'Aniztasunerako clowntuak'. Homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobiaren aurkako nazioarteko egunaren harira. Go-tzon Garate Udal liburutegian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Dolor y gloria'

10 barixakua: 21:30
11 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
12 domeka: 19:00
13 astelehena: 21:30



'Las herederas'

(Ongarri zinekluba, Berdintasun Sailarekin elkarlanean)

16 eguena: 21:30



Bisita gaitzazu!

ALTZARI BILDUMA BERRIA!

Aukera zabala

- Neurrira egindako altzariak
- Gazte-logelak
- Logelak
- Zure gustora diseinatutako kanapeak, alboko kaxoiekin, oinetakoentzako txokoarekin.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
10 BARIXAKUA	11 ZAPATUA	12 DOMEKA	13 ASTELEHENA	14 MARTITZENA	15 EGUAZTENA	16 EGUENA	17 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Apirilean hildakoak

- | | | |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Antonia Larruskain Egaña
80 urte, apirilak 1 • Vicenta Ecenarro Atristain
101 urte, apirilak 3 • Juan Betelu Azurmendi
89 urte, apirilak 3 • Marcelina Soraluze Leiaristi
88 urte, apirilak 4 • Jose Liberal Dominguez
79 urte, apirilak 5 | <ul style="list-style-type: none"> • Fernando Gonzalez Mediavilla
55 urte, apirilak 6 • Adoracion Garrido Navarro
78 urte, apirilak 9 • Maria Luisa Garate Aizpitarte
84 urte, apirilak 9 • Sabin Aramburu Arrillaga
87 urte, apirilak 14 • Araceli Uria Retolaza
48 urte, apirilak 19 | <ul style="list-style-type: none"> • Concha Manrique Reguero
97 urte, apirilak 21 • Estefania Cantero Cabanillas
88 urte, apirilak 23 • Carmen Ondarza Arbulo
84 urte, apirilak 25 • Gloria Aranguren Urkidi
81 urte, apirilak 28 |
|---|--|---|



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Julen Ansola

Irati Agirreazaldegi



Jendea, kaleak bete ohi dituen persona oldea. Denak batera joan arren, elkar apenas begietara begiratu gabe bako asko pasatu ohi gara, ordea. Horrela egin ohi dugu herritarrok uste baino sariago, eta "ez zintudan ikusi" izaten da agurtu ez izana desenkusatzeko erabiltzen dugun kodea.

Ezagunen artean, hitz egiten gelditzeko gogorik ez dugunetan batez ere, agurrik ez; ezezagunengana, *berezia* edo *ezberdinak* badira, berriz, begiradak joaten zaizkigu, nahiz eta gehienetan zalantza-keinu diren begi erdi itxiz egiten diguten ihes.

Hala ere, begiradak erakartzen ditu beti arrotzak, begirada zorrotzak. Baina kale bazterrean kantuan ari denak zergatik mo-zorroto lotsak, kantuz kaleratzen baditu bere ahotsak eta prakak jaitsita irribarre berok janzten baditu kaleko jendearen aurpegi eta begirada hotzak.

Dena du euli zaldi txarrak, hala dio esaera zaharrak, eta euliak ez, baina gitarra jotzen duen zaldiaren inguruan ziur entzungo dira marmarrak, eta gutxi aseko ditu bere jateko beharrak.

Kaleko gitarra joleari begiratuko diogu batek eta besteak tarteke, baina, gero, dena da hauei buruzko silikako berbeta, eta jartzen ditugu makina bat etiketa. Berezia edo arraroa aldamenen gutxi nahi izaten dute-eta.

Nabarmenak zein ezkutukoak denok ditugu berezitasunak, eta hauek gehienetan eragiten dituzte gaizkiesanak edo gorrotoak, baina, era berean, sor ditzakete maitasunak.

Beraz, gure barrenak erakutsiz biluztu, askotan ezetz uste dugun arren merezi duenik badugu barruan, eta arraroa bada ere, besteengan hustu. Izan ere, gehienok badauzkagu ere jakin beharko genuke alferrekoak direla ezberdinen aurrean hainbeste jizku. Berdinean ezberdina izateak denok berezi egiten baikaitu, hain justu.

"Berezia edo arraroa aldamenen gutxi nahi izaten dute-eta"



III. URTEURRENA

Manuel Rey Quiroga

1937-2016

***Denbora azkar doa,
baina zure oroitzapenak bizi dirau.
Beti gure bihotzean***

Zure familia osoak.



VII. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

***Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.***

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

Familiakoak



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



EMJAY SUMMER

Udaler Uak

Elgoibarren



INGELESEKO

FRANTSESEKO

ALEMANEKO



Ekainaren 24tik Uztailaren 26ra.

Goizez, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

PREZIOA
3 aste: 190 €
4 aste: 255 €
5 aste: 305 €

IZENA EMATEKO EPEA
Maiatzaren 9tik
ekainaren 7ra arte.

ADINA: 2014-2007 urte artean (biak barne) jaiotakoak.
TALDEAK: 8-12 lagun talde bakoitzean.

Antolatzailea:

ILS - ELGOIBAR Gipuzkoa

E-mail: ils@ils.es

T. 943 744 040

www.ils.es

**FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN**

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

